



Zizur Zendeako Udalaren 2021eko ekitaldiko Kontu orokorra



2023ko martxo



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA.....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	6
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	7
VI. AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA.....	8
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	9
VIII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO TXOSTENA	10
IX. ZIZUR ZENDEAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA	11
X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	11
GEHIGARRIAK.....	13
1. GEHIGARRIA. 2021EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA.....	13
1.1. 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria	13
1.2. Aurrekontu-emitza	13
1.3. diruzaintzako gerakinaren egoera-orria	14
1.4. Balantzea.....	14
1.5. Emitza-kontua	15
2. GEHIGARRIA. ENTITATEAREN SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA.	16
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	17
4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FINANTZA-FISKALIZAZIOAN AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK	18





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, hari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2022ko bere jarduketa-programari jarraikiz, Zizur Zendeako Udalaren 2021eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Azterketa lana 2022ko azaroan egin zuen auditoretza-enpresa batek, eta Kontuen Ganberako talde batek —auditoretzako teknikari batek eta auditore batek— gainbegiratu zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Azterketa horren emaitzak Zizur Zendeako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egoki iritziz gero alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zizur Zendeako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.





II. Helburua eta norainokoa

Gure lanaren xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

Ea 2021eko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2021eko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

Horrez gain, eta finantza-fiskalizazioaz denaz bezainbatean, Zizur Zendeako Udalak legezotasuna ote bete duen aztertu da, langileriarri eta administrazio-kontratazioari dagokienez. Horri buruzko ondorioak VIII. epigrafean jasota datoz —“Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko txostena”—

Fiskalizazioaren norainokoa Zizur Zendeako Udalaren 2021eko Kontu Orokorra da, 272/1998 Foru Dekretuan ezarritako edukiarekin bat:

- Udalaren kontua:
 - a) Aurrekontu-likidazioaren espedientea.
 - b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galera-irabazien kontuak osatzen baitute.
 - c) Udalaren kontuaren eranskinak.
- Kontu orokorraren eranskinak.





III. Iritzia

Nafarroako Kontuen Ganberak, hari buruzko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Zizur Zendeako Udalaren kontu orokorra fiskalizatu du. Kontu orokorrak osagai nagusi hauek ditu: 2021eko abenduaren 31ko balantzea, ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazio-orria.

Gure iritziz, kontu orokorrak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du Zizur Zendeako Udalaren 2021eko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko eragiketen emaitza ekonomikoei eta aurrekontu-emaizei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari —3. gehigarrian jaso— eta, bereziki, horretan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraikiz.





IV. Iritziaren oinarria

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Kontu orokorrari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eskaintzen digu, iritzia eman dezagun.



V. Auditoretzako funtsezko gaiak

Auditoretzako funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak 2021eko kontu orokorra dela-eta egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrei buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Gure fiskalizazioan ez dugula inolako funtsezko konturik jakinarazi behar erabaki dugu.





VI. Azpimarra egiteko paragrafoa

Taula honetan, 2021eko ekitaldiko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk azaltzen dira, eta aurreko ekitaldikoekin alderatzen:

Adierazlea	2020	2021	Aldea (%)
Aurrezki gordina	820.407	924.158	13
Aurrezki garbia	820.407	924.158	13
Aurrezki gordinek diru-sarrera arrunten gainean zenbat egiten duten %	% 28	% 29	1
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	2.891.759	3.251.579	12

Aurreko taula dela-eta, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

2021ean, hala aurrezki gordina nola aurrezki garbia 924.158 eurokoa izan zen, ez baitago zorpetzerik. Zenbateko horrek erakusten du baliabide arruntak aski izan zirela funtzionamendu-gastuak finantzatzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, 3,2 milioiko zenbateko positiboarekin, ehuneko 12 handitu da 2020arekin alderatuta. Magnitude hori aurrekontu-aldaketak finantzatzeko baliabide bat da.

Udalak ez du zor bizirik.

Azken finean, ekonomia- eta finantza-adierazle nagusiek finantza-egoera saneatua dute, eta horretan aipagarria da ez duela zorrik eta diruzaintzako gerakin handia daukala.





VII. Beste gai batzuei buruzko paragrafoa

• COVID-19aren pandemiak 2021ean gastuak eta diru-sarrerak sortu zizkion Zizur Zendeako Udalari. Zehazki, COVID partidetan kontabilizatutako gastuak eta diru-sarrerak 2021ean 12.073 eta 14.389 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

COVID-19aren kudeaketa	Zenbatekoa
Diru-sarrerak	14.389
0-3 urtekoen zentrorako dirulaguntza, COVIDa dela-eta	14.389
Gastuak	12.073
Autonomoentzatkoeta enpresa txiki eta ertainentzako laguntza, COVIDa dela-eta	8.000
Aparteko garbiketa, COVIDa dela-eta	62
Maskarak	533
Eskuen desinfekzioarako materiala	53
Kiroldegirako garbiketa-produktuak	830
PCR probak eta testak	1.784
Desinfekzio berezia egiteko tratamendua, COVIDa dela-eta	811

• Grant Thornton SLP auditoretza-enpresak, Nafarroako Kontuen Ganberarekin sinatutako kontratua betez, auditoretza egin zaion entitatearen kontu orokorrari buruzko fiskalizazioaren landa-lana egin du. Kontuen Ganbera enpresa horrek egindako lanean oinarritu da txosten hau egiteko.

• Ohartarazi egin behar dugu 2020ko kontu orokorrari buruzko auditoretzarik ez dela egin, eta, hortaz, 2021eko kontu orokorrean —konparazioa egite aldera— ekitaldi hori dela-eta jasotako informazioari buruzkorik ere ez.





VIII. Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko txostena

Langileriaren kudeaketaren eta kontratu-jardueraren legezkotasuna egiaztatzea.

Zizur Zendeako Udalaren Kontu Orokorrari buruz egin dugun finantza-auditoretzan aurreikusitako norainokoarekin, langileriaren kudeaketan legezkotasuna bete ote den aztertu dugu, zeina, funtsean, honako hauetan araututa baitago: abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina, hura garatzen duten xedapenak eta urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuaren testuategina onesten duena. Era berean, kontratu-jardueraren legezkotasunaren bete ote den aztertu dugu, zeina, funtsean, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeak arautzen baitu.

Egiaztapen hori egiteko, zenbait auditoretza-prozedura erabili ditugu: ezarritako barne-kontrolaren egiaztapena eta auditoretza-lanaren planifikazioan aurreikusitako prozedura analitiko eta substantiboak.

Ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu pentsatzeko ezen legezkotasun-alderdi esanguratsuenak bete direla, aplikatutako prozedurekin, langileriaren eta kontratu-jardueraren kudeaketaz denaz bezainbatean .





IX. Zizur Zendeako Udalaren erantzukizuna

Zizur Zendeako Udalaren kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatu behar baititu Udalaren ondarea, finantza-egoera, aurrekontu-likidazioa eta 2021eko abenduaren 31n zegoen emaitza ekonomikoa, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Eta iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik gabeko kontu orokorra egiteko beharrezkoa den barne-kontrolaren ardura ere badu.

Entitatearen kontu orokorra 2022ko ekainaren 29ko Osoko Bilkuran onetsi zen.

X. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure helburua da arrazoizko ziurtasun bat lortzea kontu orokorrean iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik ez egoteari buruz, bai eta gure iritzia duen auditoretza-txosten bat egitea ere.

Arrazoizko ziurtasuna lortzea esatean ziurtasun maila handia lortzea esan nahi dugu, baina horrek ez du bermatzen kontuen fiskalizazio jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik akats material bat, baldin eta halakorik badago. Akatsak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta akats materialtzat jotzen dira baldin eta, indibidualki edo modu meta-tuan, zentzuz aurreikus badaiteke eragina dutela txostenen erabiltzaileek kontu orokorrean oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan.

Kontuen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudi indardunari jarraikiz egindako fiskalizazioaren parte den aldetik, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionala mantentzen dugu auditoretza egiten ari garen bitartean. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu kontu orokorrean, auditoretzako prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritziari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errearen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizaziorako beharrezkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.





- Ebaluatzen dugu ea kontabilitate-politika egokiak aplikatu ote diren eta arrazoizkoak ote diren kontabilitateko zenbatespenak eta kudeaketa organoak horien arabera emandako informazioa.

- Kontu orokorraren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horrek zehatz irudikatzen ote dituen transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal ditugun barne-kontrolako akats adierazgarriak. Entitateko gobernu organoari jakinarazi zaizkion alderdien artean ezartzen dugu zeintzuk izan diren kontu orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasik proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, bazterrean ageri den egunean.
Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador





GEHIGARRIAK

1. gehigarria. 2021eko kontu orokorraren laburpena

Horra Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorraren egoera-orri garrantzitsuenak:

1.1. 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastuak, kapituluz kapitulu

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldea	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketa	% Bete-tzea	% Ordainketak
Langileria-gastuak	679.900	57.900	737.800	668.532	668.532	91	100
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	1.308.349	191.787	1.500.136	1.242.988	1.151.594	83	93
Transferentzia arruntak	471.703	19.000	490.703	381.152	165.371	78	43
Inbertsio errealak	417.558	1.885.801	2.303.359	1.248.398	808.439	54	65
Kapital-transferentziak	0	142.000	142.000	101.858	0	72	0
Guztira	2.877.510	2.296.488	5.173.998	3.642.927	2.793.936	70	77

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide aitortuak	Kobrantsa	% Bete-tzea	% Kobrantsak
Zuzeneko zergak	1.522.003	0	1.522.003	1.462.146	1.375.977	96	94
Zeharkako zergak	30.000	0	30.000	174.393	143.332	581	82
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	344.500	60.000	404.500	403.190	403.190	100	100
Transferentzia arruntak	885.202	80.900	966.102	1.168.183	1.159.133	121	99
Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	8.805	0	8.805	8.918	8.589	101	96
Kapital-transferentziak	87.000	157.500	244.500	47.899	8.900	20	19
Finantza-aktiboak	0	1.998.088	1.998.088	0	0	0	0
Guztira	2.877.510	2.296.488	5.173.998	3.264.729	3.099.122	63	95

1.2. Aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2020	2021
(+) Aitorturiko eskubide garbiak	3.128.634	3.264.729
(-) Aitorturiko betebeharrak garbiak	2.516.542	3.642.927
= Aurrekontuaren emaitza	612.092	-378.198
Doikuntzak		
(-) Finantza-aktiboen desbideratze positiboa	121.792	38.999
(+) Finantza-aktiboen desbideratze negatiboa	21.417	931.351
(+) Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	228.551	186.307
= Aurrekontuaren emaitza doituak	740.267	700.461





1.3. diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2020	2021	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	374.320	308.802	-18
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	192.800	201.792	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.118.841	1.175.786	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	64.513	63.801	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	1.000.220	1.120.711	
(-) Aplikatzeko dauden kobrantzak	1.615	11.867	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-598.673	-1.222.462	104
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	227.883	848.991	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	267.078	230.312	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	102.853	139.942	
(-) Diru-sarreraren itzulketak	860	3.216,21	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	4.080.651	4.257.675	4
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	20.250	0	-100
Diruzaintzako gerakina, guztira	3.876.548	3.344.015	-14%
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa lotuko gastuak direla-eta	984.789	53.438	-95
Diruzaintzako gerakina, baliabide lotuak direla-eta	0	38.999	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	2.891.759	3.251.579	12

1.4. Balantzea

Aktiboa	2020	2021	Pasiboa	2020	2021
A Ibilgetua	18.137.559	18.713.326	A Funts berekiak	22.994.077	23.178.051
1 Ibilgetu materiala	14.600.543	15.161.135	1 Ondarea eta erreserbak	17.251.298	22.055.866*
2 Ibilgetu ez-materiala	0	15.175	2 Ekitaldiko emaitza ekonomiko (etekina)	5.111.844	482.351*
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	3.537.016	3.537.016	3 Kapitaleko dirulaguntzak	630.934	639.834
C Zirkulatzailea	5.456.806	5.699.055	D Epe laburreko hartzeko-dunak	600.288	1.234.329
8 Zordunak	1.376.155	1.441.380	6 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	598.673	1.222.462
9 Kontu finantzarioak	4.080.651	4.257.675	7 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	1.615	11.867
Aktiboa, guztira	23.594.365	24.412.380	Pasiboa, guztira	23.594.365	24.412.380

*Ganbera honek doitutako zenbatekoak





1.5. Emaidza-kontua

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2020	2021	Hartzeko	2020	2021
61 Langileria-gastuak	598.701	669.466	70 Salmentak	238.323	346.161
64 Kanpoko zerbitzuak, hornidurak eta lanak	1.168.271	1.242.054	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	89.052	34.840
67 Transferentzia arruntak	293.237	381.152	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.146.530	1.427.089
68 Kapital-transferentziak	88.887	101.858	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	184.839	193.428
69 Amortizazio eta zuzkidu-retarako hornidura	356.810	365.355	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	272
800 Ekitaldiko emaitza arrunta	464.936	495.944	76 Transferentzia arruntak	1.150.118	1.167.911
			77 Kapitalaren gaineko zergak	13.969	16.022
			78 Beste diru-sarrera batzuk	148.010	70.106
Guztira	2.970.842	3.255.829	Guztira	2.970.842	3.255.829

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)		469	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	464.936	495.944
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	28.166	13.124			
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	436.771	482.351			
Guztira	464.936	495.944	Guztira	464.936	495.944





2. gehigarria. Entitatearen sektore publikoaren zedarritzea.

Honako kontzeju hauek osatzen dute Zizurko Udala: Asterain, Zizur Txikia, Gazolatz, Larraia, Muru-Asterain, Paternain, Undio eta Zarikiegi, bai eta Eriete, Gendulain eta Sagues populazio-entitate bereziak ere. 46,5 km²-ko hedadura du. 2021eko urtarrilaren 1ean, 3.890 biztanle zituen.

2021eko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren datu ekonomiko nagusiak eta langile-arlokoak:

Entitatea	Eskubide aitortuak	Aitortutako obligazioak	Langileak, 2021-12-31n
Udala	3.264.729	3.642.927	12

Udala, halaber, Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, zeinak honako zerbitzu hauek ematen baititu: uraren ziklo integrala, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioa. Horren alde onartutako gastua, 2021ean, 86.000 eurokoa izan da, eta oso-osorik dagokio hiri-garraioaren zerbitzuari.

Udalak ez dauka ez erakunde autonomorik, ez merkataritza-sozietaterik.

Hona Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
	Udala		Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	X			
Hilerria	X			
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea				X
Bide-garriketa	X			
Edateko uraren etxeetako hornidura				X
Estolderia				X
Gizarte zerbitzuak			X	
Kirol instalazioak	X		X	
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa				X
Hirigintza			X	
Udaltzaingoa	X			
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X			
0-3 urtekoen ikastetxea			X	
Lorezaintza			X	





3. gehigarria. Arau-esparrua.

Honako hauek dira Udalari aplikatzekoak zaizkion arauak, besteak beste:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan aplikatu beharreko xedapenak).
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa; 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, urrekontu egiturari buruzkoa, eta 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorra onestekoa.
- Udalaren 2021eko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne arauak.





4. gehigarria. Oharrak eta finantza-fiskalizazioan aurkitutako beste gorabehera batzuk

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar batzuk eta informazio gehigarria gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Alderdi orokorrak:

Kontu-hartzaitzak ez du eragozpenik jarri 2020an eta 2021ean.

Udalak onetsita dauka udal ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua, eta ez da 2021eko abenduaren 31n zegoen balantzearekiko desberdintasunik hauteman.

Udalaren aholkulari juridikoak emandako txostenaren arabera, 2021eko ekitaldia bukatzean lau auzi zeuden ebazteke; nolana ere, txosten hau egin den egunean, errekurso bakar bat dago ebazteke. Errekurtso hori etenda dago, Konstituzio Auzitegiaren ebazpen prejudizial baten zain, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegiak errekurtsua jarri baitzuen Nafarroan gainbalio-zerga arautzen duen lege-araudiaren zehaztapen jakin batzuk direla-eta. Horren eragin ekonomikoa 118.388 eurokoa da.

4.1. Aurrekontu orokorra

Udalaren 2021erako aurrekontua onetsi zenean, gastuen eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspenek 2,87 milioi euro egiten zuten. Behin betiko onespena 2021eko otsailaren 1eko NAO n argitaratu zen.

2,30 milioiko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko 80 egiten dute—, behin betiko aurreikuspenak 5,17 milioikoak izan ziren. Aldaketen zenbateko osoaren ehuneko 82 inbertsio errealen 6. kapitulari dago-kio.

Aurrekontu-likidazioa

2021ean, gastuak 3,64 milioikoak izan ziren, betetze- eta kobratze-ehunekoak 70 eta 77koak izan ziren, hurrenez hurren.

Diru-sarrerek 3,26 milioi euro egin zuten 2021ean, eta betetze- eta kobratze-ehunekoak 63 eta 95ekoak izan ziren, hurrenez hurren.





Taula honetan ageri dira Udalaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2021	Finantza-iturria	Zenbatekoa, 2021
Langileria	18	Tributu bidezko diru-sarrerak	63
Bestelako gastu arruntak	48	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	37
Inbertsio errealak	34		

Gastu arruntek gastu guztien ehuneko 66 egiten dute. Horietatik, langileriakoak gastu guztien ehuneko 18 dira, eta inbertsioak, ehuneko 34.

Diru-sarreretan, tributu-jatorrikoek guztizkoaren ehuneko 63 egiten dute, eta transferentziek, ehuneko 37.

4.2. Kudeaketa-alor garrantzitsuak

4.2.1. Langileria-gastuak

Langileria-gastuak 668.532 eurokoak izan ziren, ekitaldian sorrarazitako gastu guztien ehuneko 18, eta haien betetze-maila ehuneko 91koa izan da.

Hona aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

Kontzeptua	ABG, 2020	ABG, 2021	Aldea (%)
Montepioa eta familia laguntza	69.000	69.988	1
Hautetsien lansariak	30.022	30.000	0
Hautetsien Gizarte Segurantzak	9.655	8.068	-16
Funtzionarioen oinarrizko lansariak	34.687	62.265	80
Funtzionarioen lansari osagarriak	23.798	41.157	73
Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	272.134	278.884	2
Behin-behineko lan-kontratudunen ordainsariak	38.856	47.077	21
Gizarte kuotak	115.921	127.650	10
Langile kontratadunen aseguruak	493	609	24
Langileen mediku-azterketak	3.199	2.834	-11
Guztira	597.765	668.532	12

Langileria-gastuak ehuneko 12 igo dira 2020arekin alderatuta, kontu-hartzaileria lanean hasi denez gero funtzionarioen ordainsariak igo direlako.

2021eko abenduaren 31n, honako lanpostu hauek zeuden plantilla organikoan:

Sailkapena	2020	2021
Langile funtzionarioak	4	5
Lan-kontratadunak	7	7
Guztira	11	12

Plantillako 12 lanpostuetatik, ehuneko 58 lan-araubidekoak dira, eta ehuneko 42 funtzionarioen araubidekoak.





Honako hau da lanpostuen egoera:

Langileria	2020	2021
Plantillako lanpostuak	11	12
Beteta	8	8
Hutsik	3	4
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	27	33
Bete diren lanpostu hutsak	3	3
Bete diren lanpostu hutsak (%)	100	75
Bete gabeko lanpostu hutsak	0	1
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	0	25

2021ean, plantillako 12 lanpostuetatik, 4 hutsik daude. Horietako hiru aldi baterako beteta daude, eta bat bete gabe dago. Plantillaren behin-behinekotasun tasa ehuneko 27koa da.

Aipatu behar da plantilla organikoak kontu-hartzaitzako bi lanpostu barne hartzen dituela: bata A mailakoa, eta bestea, B mailakoa; azken hori azkenduko da A mailako lanpostua barne-sustapen mugatu bidez hornitzen denean.

Egin den azterketatik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Plantilla organikoaren hasierako onespena 2020ko abenduan argitaratu zen NAOn; behin alegazioen izapidea amaituta, behin betiko onespena ez zen argitaratu.

- Ekitaldian zehar plantillaren aldaketa bat onetsi zen, eta horren behin betiko onespena 2022ko maiatzaren 10eko 90. NAOn argitaratu zen, kontu-hartzailetzako A mailako lanpostu bat sortu eta Udaltzaingoko Zerbitzuko buru-koordinatzaile bat izendatzeko asmoz.

- 2022ko abenduan lan publikoaren eskaintza argitaratu zen (erretiroaren ondorioz hutsik geldituko diren bi lanpostu).

2021eko urtarrileko nominak aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu ordainsarien kontzeptuak zuzen aplikatu direla, plantillan jasotakoaren arabera.

Era berean, ofizial administrariaren lanpostu bat aldi baterako lan-kontratuko araubidean betetze aldera 2021ean egindako deialdia aztertu dugu, eta izapidea zuzena izan da, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioen arabera.

Gure gomendioa:

Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak xedatutakoaren arabera argitaratzea plantilla organikoaren behin betiko onespena.





4.2.2 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 2021eko ekitaldian 1,24 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 34 egiten dute; haien betetze-maila ehuneko 83koa da.

2020ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko sei egin zuten gora, xehakaturik jarraian azaltzen denaren arabera:

Kontzeptua	ABG, 2020	ABG, 2021	Aldea (%)
Ibilgetu materialaren errentamenduak	887	1.840	108
Azpiegiturak eta ondasun naturalak	58.450	85.348	46
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	26.896	52.895	97
Makineria, instalazio teknikoak eta tresneria	51.113	37.378	-27
Garraio-elementuak	-	6.994	-
Altzariak	5.827	1.864	-68
Informazio prozesuetarako ekipamenduak	44.659	38.739	-13
Bulegoko materiala	19.885	23.086	16
Hornidurak eta komunikazioak	160.290	148.000	-8
Komunikazioak	10.213	9.745	-5
Garraioak	7.140	9.480	33
Aseguru-primak	19.571	18.285	-7
Askotariko gastuak	118.098	129.425	10
Beste enpresa eta profesional batzuek egindako lanak	645.242	678.975	5
Dietak	936	934	0
Guztira	1.169.207	1.242.988	6

Gastuen honako lagin hau aztertu dugu (kapituluko guztizkoaren ehuneko 54 egiten dute).

Kontzeptua	ABG, 2021
Beste enpresa batzuek egindako lanak:	
Kirol instalazioen kudeaketa-gastuak	234.275
0-3 urtekoen zikloaren kudeaketa	222.845
Kultura eta kirola programaren garapena	96.381
Askotariko gastuak: juridikoak eta auzietakoak	68.276
Azpiegiturak eta ondasun naturalak: lorategien mantentze-lanak	49.688

Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta, onetsita, kontu hartuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- “Kirol-instalazioen kudeaketa-gastuak” partidak barne hartzen ditu gizarteratze-errentaren hartzailak kontratatze ordainsariak, 106.957 euro egiten dutenak. 2022ko aurrekontuan hori zuzendu da, langileria-gastu gisa sartu baita 1. kapituluko “Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzekin kontratatutako langileen ordainsariak” partidari.





4.2.3 Inbertsioak

Inbertsioak 1,25 milioi eurokoak izan ziren. Gastu guztien ehuneko 34 da hori.

Behin betiko kredituen ehuneko 54 bete da, batez ere zenbateko handiko inbertsio batzuk 2022ko ekitaldian amaitu zirelako, hala nola Elortz ibaiko ibai-pasealekua, Zizur Txikiko bidea zolatzea eta kirol-instalazioak birmoldatzeko kontratuaren aldaketa. Inbertsio horiez denaz bezainbatean, bete gabeko behin betiko aurreikuspena 690.503 eurokoa da.

Ekitaldiko inbertsiorik esanguratsuenak aztertu ditugu (6. kapituluko guztizkoaren ehuneko 88).

Inbertsioa	Gastua
Zizur Txikiko kirol-instalazioak birmoldatzea	862.730
Zizur Txikiko Sta Clara bidea zolatzea (*)	179.170
Elortz ibaiko ibai-pasealekua	58.804
Guztira	1.100.704

Iruñerriko Mankomunitatearen eta Zizur Zendeako eta Galar Zendeako Udalen artean sinatutako hitzarmenaren arabera egin dira Elortz ibaiko ibai-pasealekuko lanak.

Gainerako obrei dagokienez, lizitazioak, horien adjudikazioa eta 2021eko ekitaldiari dagokion gastuaren betetzea aztertu ditugu.

Xedea	Prozedura	Lizitzaile kopurua	Adjudik.* zenbatekoa	Adjudikazioaren merkatzea (%)
Zizur Txikiko kirol-instalazioen birmoldaketa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	1	833.690	0
Egun dagoen espaloi baten urbanizazioa eta aurreikusita dagoen berri batena, NA-6000 tokiko errepidearekin mugakide diren zatietan, Zizur Txikian	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	5	221.774	18

* BEZa barne

Oro har, aipatutako kontratuak adjudikatzeko espedienteak araudiaren arabera izapidetu dira eta haiekin zerikusia duten 2021eko gastuak behar bezala kontabilizatuta daude. Hala ere, gorabehera hauek azpimarratu behar ditugu:

- Kontratuetan ezarritako betetze-baldintza bereziak lan- eta ingurumen-araudiaren arabera nahitaez bete beharrekoak dira.
- Adjudikazioa interesdunei jakinarazten zaie; alabaina, ez da Kontratazio Atarian argitaratzen.
- Kirol-instalazioak birmoldatzeko obraren espedientean, adjudikazio irizpide sozialak ez dira araudian ezarritako guztizko puntuazioaren ehuneko 10eko gutxieneko haztapenera iristen.





Obra betetzean, aldaketa bat egin da, guztira 331.221 eurokoa, BEZa barne; adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 40 da. Aldaketa justifikatu da ezin aurreikusizko inguruabarrak gertatzeagatik, eta Toki Administrazioiko Zuzendari Nagusiaren 2021eko urriko ebazpenaren ondorio da, zeinetan behin betiko sartzen baita 2017-2019 aldirako Tokiko Inbertsio Planean “kirol-instalazioen erai-kinen inguratzaile termikoaren hobekuntza” inbertsioa, hasiera batean erre-serba-zerrendan zegoena. Obra-ziurtagiriak eta dirulaguntza 2022ko aurrekontuari egotzi zaizkio.

- Zizur Txikiko bidea zolatzeko obrari dagokionez, Zizur Zendeako Udalari baimena eman zitzaion Herri Lanetako zuzendari nagusiaren uztailaren 30eko 712/2021 Ebazpenaren bidez. Xede du NA-6000 errepidearen ondoan dagoen areka kanalizatzea eta oinezkoendako espaloï bat egitea. Hortaz, udalak egiten du gastua, baina Nafarroako Gobernuak da bidearen jabea.

Udalak ez ditu egiaztatu pleguan ezarritako konpromisoak bete izanaren justifikazioak, gizarteratze-zentroekin eta enplegu zentro bereziekin egiten den azpikontratazioaz eta berdintasunaren eta kontziliazioaren arloko sentsibilizazio-ekintzak eta prestakuntza gutxienez 8 orduz emateaz denaz bezainbatean.

Pleguak ez du zehazten zein den eskaintza bat anormalki baxuegitzat jotzeko baldintza.

Gure gomendioak:

- *Kontratuen pleguetan, exekuzio baldintza bereziak kontratuaren xedera egokitzea.*
- *Kontratuen adjudikazioak Kontratazio Atarian argitaratzea.*
- *Enpresa adjudikaziodunei eskatzea adjudikazio-irizpide gisa sartutako konpromisoak bete izanaren justifikazioa, pleguan ezarritako moduan.*
- *Pleguetan zehaztea eskaintza bat anormalki baxuegitzat jotzeko baldintzak.*





4.2.4. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital-transferentziengatiko gastuak

Transferentzia- eta dirulaguntza-gastuak 2021ean 483.000 eurokoak izan ziren, eta honako onuradun hauei eman zitzaizkien:

	Transferentzia arruntak		Kapital-transferentziak	
	Aitortutako betebeharrak	2021/2020 aldea (%)	Aitortutako betebeharrak	2021/2020 aldaketa (%)
Zerbitzu administratiboen batasunak	5.313	0	-	-
Kontzejuak	144.224	25	101.858	15
Familiak	34908	11	-	-
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	32.049	12	-	-
Mankomunitateak	85.852	6	-	-
Udalerriak	64.866	192	-	-
Beste transferentzia batzuk	13.940	46	-	-
Guztira	381.152	30	101.858	15

Transferentzia- eta dirulaguntza-arruntengatiko gastua 381.152 eurokoa izan da, 2020an baino ehuneko 30 gehiago, batez ere Oinarrizko gizarte-zerbitzuko programak emate aldera Zizur Nagusiko Udalarekin sinatutako lankidetzaz-herizarmena berri delako. Berritze horren ondorioz, kontzeptu horri dagokion gastua 20.200 eurotik 62.866 eurora pasatu da.

2021ean emandako kapitaleko transferentziak eta dirulaguntzak 101.858 eurokoak izan ziren, ekitaldian aitortutako betebeharren gutzitzkoaren ehuneko hiru, eta ehuneko 15 egin dute gora 2020arekin alderatuta.

Transferentzien eta dirulaguntzen honako lagin hau aztertu dugu:

Kontzeptua	ABG, 2021
Transferentzia arruntak	
Eskualdeko garraio publikoa	85.852
Kontzejuen lankidetzarako eta garapenerako funtsa	75.118
Zizur Nagusiko Udala (OGZ)	62.866
Kapital-transferentziak	
Kontzejuentzako kapital-dirulaguntzak	88.887

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta dirulaguntza guztiak egokiro onetsita, fiskalizatuta eta kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera.





4.2.5. *Tributuak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak batzuk*

2021ean tributu, prezio publiko eta bestelako diru-sarrerengatik aitorturiko eskubide garbiak 2,04 milioi eurokoak izan ziren. Kopuru hori diru-sarrera guztien ehuneko 62 da.

2021eko eta 2020ko ekitaldien arteko alderaketa taula honetan azaltzen dugu:

Kontzeptua	Aitorturiko eskubide garbiak (2020)	Aitorturiko eskubide garbiak (2021)	Betetakoa (%)	2021/2020 aldaketa (%)
Zuzeneko zergak	1.283.656	1.462.146	96	14
Zeharkako zergak	61.683	174.393	581	183
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	376.278	403.190	100	7

Zergak

2021eko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubide garbiak 1,64 milioi euro egin zuten. Eskubideen guztizkoaren ehuneko 50 egiten dute, eta honako zerga-figura hauei dagozkie:

Deskribapena	AEG 2020	AEG 2021	Diru-sarrerak guztien gainean (%)	2021/2020 aldea (%)
Zuzeneko zergak				
Landa-lurraren kontribuzioa	9.043	11.171	0	24
Lurraren kontribuzioa	967.340	1.189.670	36	23
Zirkulazioaren gaineko zerga	184.839	193.428	6	5
Lurren balioaren igoseraren gaineko zerga	13.969	16.022	0	15
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	108.465	51.856	2	-52
Zeharkako zergak				
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	61.683	174.393	5	183

Zenbateko handieneko eskubide aitortuak hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioari dagozkio: 1,2 milioi euro.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarengatik diru-sarrerak ehuneko 183 igo dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Etxebizitzak eraikitze obra-espedienteen likidazioek 2021ean 65.938 euro egin zutelako gertatu da aldaketa hori.

Udalak aplikatutako zerga-tasak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte ertain-altuan kokatzen dira, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

Zerga-figura	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,21	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,21	
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	12	8-25
Eraikuntza, instalazio eta obrak	5	2-5





Aztertutako laginean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta diru-bilketa ordenantzei eta kasuko araei jarraikiz egin direla.

Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrera batzuk

Tasengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2021ean aitortutako eskubide garbiek 403.190 euro egin zuten. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko 12 egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aitortutako eskubide garbien guztizkoaren gainean (%)	Aldea (%) 2021/2020
Tasak eta prezio publikoak	344.490	11	46
Beste diru-sarrera batzuk	58.700	2	-58

Honako partida hauen lagin bat aztertu dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aldea (%)
Kirol-instalazioetako kuotak	149.893	27
0-3 urtekoen zentroko kuotak	76.500	42
Kultur jardueren kuota	60.787	140

Egindako lanarekin egiaztatu dugu ezen, oro har, likidazioa eta aitortza aplikatzekoa den araudiaren arabera egin direla.

4.2.6. Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Transferentzien eta dirulaguntza arrunten eta kapitalekoen bidezko diru-sarreak 1,22 milioi eurokoak izan ziren, eta 2020arekin alderatuta, honako hau izan zen aldaketa:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2021/2020
	2020	2021	
Transferentzia arruntak	1.150.119	1.168.183	2
Kapital-transferentziak	248.019	47.899	-81

Transferentzia- eta dirulaguntza-partiden honako lagin hau aztertu dugu:

	Zenbatekoa
Transferentzia arruntak	
Toki ogasunen funtsa	770.239
Ekonomia-jardueren gaineko zergaren konpentsazioa.Toki ogasunen funtsa	109.631
0-3 urtekoen zentroa kudeatzeko dirulaguntza	101.314
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, kirol-instalazioetan langabeak kontratatzekeo	65.882
Kapital-transferentziak	
Hirigintza-aprobetxamendua	38.999





Toki Ogasunen Parte Hartzeko Funtsaren ekarpenaren zenbatekoa, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren konpentsazio gisa, zerga horrengatik legozkiokeen zerga-kuotei dagokie, baldin eta zergaren erreformaren ondoriozko salbuespenik egon ez balitz.

Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzen berrikuspena honetan datza: egiaztatzea koherenteak ote diren udalaren aurrekontu-informazioa eta Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-informazioa, bai eta informazio horren euskarri diren administrazio-egintzak eta udalak aurkeztutako justifikazioak ere.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu, oro har, transferentziengatik eta dirulaguntzengatik aitortutako eskubideen likidazioa justifikatuta dagoela aplikatu beharreko araudiaren arabera.

